**TOKIKO GOBERNU BATZORDEA** **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL**

**TOKIA/LUGAR:** UDALETXEKO BATZORDE GELA / SALA COMISIONES DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 2017/03/16

**HASIERA / INICIO:** 16:00etan /horas

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ/PNV):**
Doña Aitziber Irigoras Alberdi (EAJ/PNV) Alkate Andrea / Alcaldesa

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
1.Alkateordea: Dª Pilar Rios Ramos andrea PSE-EE (PSOE), 1ª Teniente de Alcalde
2.Alkateordea: Dª Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea (EAJ/PNV), 2ª Teniente de Alcalde
3.Alkateordea: D. Iker Oceja Sobrón jauna (EAJ/PNV), 3º Teniente de Alcalde
4.Alkateordea: Dª Goiztidi Díaz Basterra andrea (EAJ/PNV), 4ª Teniente de Alcalde
5.Alkateordea: D. Humberto Jaio Sagasti jaun (EAJ/PNV), 5º Teniente de Alcalde
6.Alkateordea: D. Jose Mari Andrés Ibañez de Garaio jauna (EAJ/PNV), 6º Teniente de Alcalde

**IDAZKARIA/ SECRETARIO**
Don Ramon Sorarrain Tolosa jauna(Idazkari Nagusia/Secretario General)

**IZAERA / NATURALEZA:** OHIKOA / ORDINARIA

**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** LEHENA / PRIMERA

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTAREN ZIRRIBORROAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.**

Onartu egin dira 2017ko otsailaren 26ko eta martxoaren 9ko aktak.

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR**

Se aprueban las actas correspondientes a 26 de febrero y 9 de marzo de 2017.

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTAREN ZIRRIBORROAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.**

Onartu egin dira 2017ko otsailaren 23ko eta martxoaren 9ko aktak.

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR**

Se aprueban las actas correspondientes a 23 de febrero y 9 de marzo de 2017.

**BI.- INTERESEKO GAIAK**

* 5. Alkate Ordea **Jaio Sagasti jaunak (EAJ/PNV)**, food trucks-ak jartzeko berbaz egindako zenbait eskaeraren berri eman du.

Tokiko Gobernu Batzordeak dio gaia aztertuko duela baina, betiere, bertako merkataritza babesteko baldintzapean.

* 6. Alkate Ordea **Andrés Ibañez de Garaio jaunak (EAJ/PNV),** Durango Rugby Taldearen Club House proiektuaren berri eman du.

Proiektuaren berri eman zaio udaleko bulego teknikoari.

Bestalde, jakinarazi du aurten 30 urte egingo dituela Durango Rugby Taldeak. Zenbait ekitaldi egingo dituzte urteurrena ospatzeko. Halaber, Landako Erakustazoka erabiltzea eskatzen dute eta diru-laguntzaren bat eman dakiela ere bai.

Tokiko Gobernu Batzordea jakinaren gainean dago.

* 1. Alkate Ordea **Ríos Ramos andreak PSE-EE (PSOE)** jakinarazi du - Gutxienez 75 urte dituzten pertsonen etxebizitzak ERABERRITZEKO LANAK Durango udalerrian deituriko diru laguntzak arautzeko oinarrien berri

Tokiko Gobernu Batzordea jakinaren gainean geratzen da.

Rugby zelaian egingo diren aldaketen berri eman zaio federakuntzari, hala badagokio, baliozta ditzan.

Bestalde, Bizkaiko futbol federazioak futbol zelaietako seinaleak aldatzeko derrigortasuna ezarri du inongo araudirik barik eta futbol federatua ez baimentzeko mehatxuarekin.

Jarduera honen juridikotasuna aztertuko da.

**DOS.- ASUNTOS DE INTERÉS.**

* El 5º Tnte. de Alcalde **Sr. Jaio Sagasti (EAJ/PNV)**, pone sobre la mesa determinadas solicitudes verbales en orden a la instalación de food trucks en el municipio.

La Junta de Gobierno Local acuerda estudiar el tema bajo la premisa de protección del comercio local.

* El 6º Tnte. de Alcalde **Sr. Andrés Ibañez de Garaio (EAJ/PNV),** pone en conocimiento de la Junta el proyecto Club House de Durango Rugby Taldea.

Se da traslado del mismo a la Oficina Técnica.

Por otra parte, expresa que este año se van a celebrar 30 años de Durango Rugby Taldea, razón por la cual se plantean actos de celebración y se solicita la utilización de Landako Erakustazoka y una cantidad económica.

La Junta de Gobierno Local se da por enterada.

* La 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)** pone de manifiesto el contenido de las Bases por las que se regula la concesión de ayudas para la "REHABILITACION DE VIVIENDAS DE PERSONAS de 75 o más años" en el municipio de Durango.

La Junta de Gobierno Local se da por enterada.

Se va a dar traslado de las modificaciones que se van a efectuar en el campo de rugby a la federación a los efectos de su convalidación.

En este orden de cosas, la Federación vizcaína de fútbol está obligando e cambio de señalización de los campos sin normativa alguna y mediando amenaza de imposibilitar el fútbol federado.

Se analizará la juridicidad de esta actuación.

**HIRU.- DURANGOKO UDALAREKIN SINATU BEHARREKO LANKIDETZA-HITZARMENA, INFORMAZIO, ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA ELEKTRONIKOKO ZERBITZUAK ELKARRI EMATEKO.**

Hitzarmenaren testuaren berri eman da. Hauxe dio:

**DURANGOKO UDALAREKIN SINATU BEHARREKO LANKIDETZA-HITZARMENA, INFORMAZIO, ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA ELEKTRONIKOKO ZERBITZUAK ELKARRI EMATEKO**

Bilbon, 2016ko _______aren __(e)(a)n.

**HAUEK BILTZEN DIRA**

I. Alde batetik, Durangoko Udala; beraren ordezkaria Aitziber Irigoras Alberdi andrea da, adinduna, eta Alkate modura etorri da, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea aplikatuz (7/1985 Legea, apirilaren 2koa), eta Toki-Araubidearen Gaietan indarrean dauden Xedapenen testu bateginak esleitutako eskumenak erabiliz (apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsia).

II. Bestetik, Ibone Bengoetxea Otaolea andrea, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Foru Diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari moduan, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren arabera, eta bere eskumenak erabiliz, Ahaldun Nagusiaren 2015eko uztailaren 2ko 94/2015 Foru Dekretuaren arabera —izan ere, foru dekretu horrek Bizkaiko Foru Aldundiaren sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezarri zituen—.

**TRES.- CONVENIO DE COLABORACIÓN A SUSCRIBIR CON EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO PARA LA PRESTACIÓN MUTUA DE SERVICIOS DE INFORMACIÓN, ADMINISTRACIÓN Y GESTIÓN ELECTRÓNICA.**

Se da cuenta del Texto del Convenio de referencia, cuyo tenor literal es:

**CONVENIO DE COLABORACIÓN A SUSCRIBIR CON EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO PARA LA PRESTACIÓN MUTUA DE SERVICIOS DE INFORMACIÓN, ADMINISTRACIÓN Y GESTIÓN ELECTRÓNICA**

En Bilbao, a ____ de _____de 2016.

**REUNIDOS**

I. De una parte, el Ayuntamiento de Durango, hallándose representada por Dª. Aitziber Irigoras Alberdi, mayor de edad, en su condición de Alcaldesa, en representación por aplicación de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, y en el ejercicio de las competencias atribuidas por el Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local, aprobado por Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril.

II. De otra parte, Dª. Ibone Bengoetxea Otaolea ,Diputada Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales de Bizkaia, en representación de dicha Diputación Foral de Bizkaia, conforme a la NORMA FORAL 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y en el ejercicio de sus competencias de acuerdo al DECRETO FORAL del Diputado General 94/2015, de 2 de julio de 2015, por el que se establecen los departamentos de la Diputación Foral De Bizkaia y sus áreas de actuación y funciones.

Bi aldeek lankidetza-hitzarmen hau sinatzeko lege-gaitasun nahikoa dutela aitortzen diote elkarri, eta aurrerantzean, eta hitzarmen honen ondorioetarako, "alde"k Bizkaiko Foru Aldundia edo toki-erakundea esan nahi du, kasuan-kasuan adierazpenak duen adieraren arabera, eta "aldeak/ek" Foru Aldundia eta toki-erakundea batera adierazten dituzte.

Ambas partes se reconocen la capacidad suficiente para el otorgamiento de este Convenio de Colaboración, y en adelante, y a los efectos del presente convenio, "Parte" significa la Diputación Foral de Bizkaia o la entidad local según el sentido de la expresión en cada caso, y "Partes" significa la Diputación Foral y la entidad local conjuntamente.

**HAU ADIERAZTEN DUTE:**

**EXPONEN**

I. Gaur egungo gizartean, toki-erakundeek egunean-egunean eraginkortasunez esku hartzen dute euren auzoen interesei eta nahiei dagozkien gai guztietan, eta hor dagoen muga bakarra da eraginkortasunaren, efizientziaren eta administrazio onaren printzipioak errespetatzea; betiere, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren araudi aplikagarria bete behar da, udal autogobernuaren eredurik garatuenekin bat etorriz. Helburu horiek lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Durangoko Udalak honako betebehar hauek dituzte: hiritarrei intereseko zerbitzuak eskaintzea, efizientzia bilatzea baliabide publikoen erabileran, eta administrazio-izapidetzea erraztea.

I.- Que en la sociedad actual las entidades locales intervienen diariamente de manera efectiva en cuantos asuntos afectan a los intereses y aspiraciones de sus vecinos y vecinas, sin otro límite que el respeto a los principios de eficacia, eficiencia y buena administración, con sujeción a la normativa aplicable de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera, en coherencia con los modelos más desarrollados de autogobierno municipal. Para cumplir dichos objetivos, tanto la Diputación Foral de Bizkaia como el Ayuntamiento de Durango requieren de unos servicios que sean de interés para la ciudadanía, conjugándolo con un uso eficiente de los recursos públicos, así como simplificando la tramitación administrativa.

Betebehar horiek bai Bizkaiko Foru Aldundiak bai Toki-Administrazioak bete beharrekoak dira; eta ezinbestekoa da administrazio publikoen arteko lankidetza areagotzea, sistemaren funts diren printzipioak sendotzen dituzten formulen bitartez. Lankidetza-teknika horien barruan, informazioa trukatzeko sistemak indartu behar dira, hiritarrei eska ez dakizkien administrazioren baten daborduko dauden datu eta informazioak; hori ez ezik, eragozpenak eta bikoiztasunak saihestuko dira, eta horiek hiritarren onerako izango dira.

Estas obligaciones son compartidas, tanto por la Diputación Foral de Bizkaia como por la Administración Local, siendo absolutamente necesario intensificar la cooperación entre Administraciones Públicas mediante fórmulas que consoliden los principios inspiradores del sistema. Dentro de estas técnicas de cooperación deben potenciarse los sistemas de intercambio de información que eviten la necesidad de solicitar a la ciudadanía datos e informaciones que ya se encuentran albergados en alguna Administración, evitando molestias y duplicidades que redundarán en beneficio de los ciudadanos.

II. Administrazioaren adar guztiak elkarrekin konektatuta egotea lortu nahi dugu guztiok; eta nahi hori ameskeria izatetik araudiaren betebeharra izatera igaro da, 11/2007 Legearen

II.- La aspiración general de conseguir una Administración interconectada ha pasado de ser una quimera a una obligación normativa impuesta por Ley 11/2007, de acceso

bitartez —izan ere, lege hori hiritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoa da, eta administrazio publiko guztiei ezartzen die euren artekoetatik edozeinekin harreman elektronikoak eduki ahal izateko modua—. Joera berri horren oinarria ez datza araudi-borondatean bakarrik, ezpada badira lanabesak teknologiaren ikuspegitik bideragarri, seguru eta efizienteak direnak, eta horiek guztiek ulertezin bihurtzen dute hiritarrentzat elkarrekin lotzearen aurkako jarkitzea, bai ikuspegi teknikotik, bai legearen ikuspegitik.

electrónico de los ciudadanos a los servicios públicos, que impone a todas las Administraciones Públicas la posibilidad de mantener las relaciones electrónica con cualquiera de ellas. Este nuevo planteamiento no se sustenta sólo en una voluntad normativa sino que existen herramientas tecnológicamente viables, seguras y eficientes que hacen que la resistencia a su interconexión sea incomprensible para los ciudadanos desde una perspectiva técnica como legal.

Beste alde batetik, ezin ahantz daiteke administrazio elektronikoari emandako bultzada arauemailea; bultzada hori dator arestian argitaratu direlako lege hauek: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa; eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa; izan ere, legeok baieztatu baino ez dute egiten administrazioa badela eta izango dela elektronikoa; eta araudiaren aldetik sendotu egin da atzera gabeko jokabidea.

Por otra parte, no puede obviarse el impulso normativo a la Administración electrónica realizado por las recientes publicaciones de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, que no hacen más que confirmar que la Administración es y será electrónica, habiendo consolidado normativamente una tendencia sin retorno.

III. Era berean, eta elkarkonexioa derrigorreko bihurtu duen bultzada arauemaile hori izan ez balitz ere, aldeek aitortzen dute beharra dagoela ohikotasunez eta egunero datuak partekatzeko; eta elkarkonexioa zeharo beharrezkoa da, bai eginkizunak garatzeko, bai eskumenak egikaritzeko. Sektore publikoaren barruko harremanen gidari izan behar duen elkarrenganako lankidetzaren esparruan, haren jarduketa eraendu behar duten efizientziaren eta hiritarrentzako zerbitzuaren printzipioak aplikatuz, aldeek beharrezko hartzen dute elkartruke horren baldintzak arautzea; izan ere, trukatze hori egingo da zelan eta eskuarte informatiko zein telematikoak erabiliz; betiere, hiritarrei dagozkien berme eta eskubideak zainduko dira, sektore publikoan haiek dituzten datu pertsonalen eretzean.

III.- De la misma forma, y aunque no existiese éste último impulso normativo que obliga a la interconexión, las Partes reconocen la habitual y diaria necesidad de compartir datos, siendo absolutamente necesaria para el desarrollo de las funciones y el ejercicio de las competencias. En el marco de la cooperación mutua que debe presidir las relaciones entre el Sector Público, en aplicación de los principios de eficiencia y servicio a la ciudadanía que han de regir su actuación, las partes consideran necesario regular las condiciones de dicho intercambio, que se producirá utilizando medios informáticos o telemáticos, con salvaguarda de las garantías y los derechos que asisten a la ciudadanía, en relación a sus datos personales en poder del Sector Público.

IV. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak eta Presidentetzako Ministerioak lankidetza-hitzarmen bat izenpetu zuten 2010eko urriaren 18an, administrazio elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko, eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak SARA sarean sarbidea izatea dago haren aplikazio-eremuaren barruan. Sare horretan Presidentetzako Ministerioak eta autonomia-erkidegoek garatutako azpiegitura teknologikoak daude, eta nahi duten administrazio guztiek konektatzeko eta aplikazioak trukatzeko sistema bat erabiltzeko aukera ematen du. Hitzarmen horretako II. eranskinean esaten da Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa konprometitzen dela toki-administrazioek, eurek erabakitako teknologia, mekanismoak eta prozedurak erabiliz, SARA sarean sarbidea izan dezaten bideratu eta sustatzera.

IV.- Que la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el Ministerio de la Presidencia suscribieron, el 18 de octubre de 2010, un Convenio de Colaboración para la prestación mutua de servicios de Administración Electrónica, cuyo ámbito de aplicación incluye el acceso de Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi a la Red SARA. Esta Red es un conjunto de infraestructuras tecnológicas desarrollado por el Ministerio de la Presidencia y las Comunidades Autónomas que permite conectar a todas las Administraciones que lo deseen y facilitar un sistema de intercambio de aplicaciones. En el anexo II de dicho Convenio se señala que la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi se compromete a facilitar y promover el acceso de las Administraciones Locales a la Red SARA con la tecnología, mecanismos y procedimientos que éstas acuerden.

Administrazioak elkarrekin konektatuta egotea sustatzen duen jarduera horri jarraituz, 2015eko azaroaren 6an, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuen lurralde historikoetako hiru foru aldundien ordezkariekin helburu honetarako: nork bere eremuan informazioa eskuarte elektronikoen bidez trukatzea. Akordio honen II. eranskinean, Bizkaiko Foru Aldundiak konpromiso hau hartu zuen: datuen bitartekotza-zerbitzuen erabilera eta hartarako sarbidea erraztea, sustatzea eta bideratzea bere eskumen-eremuko organismo eta entitateei dagokienez, eta zerbitzuaren kalitatea bermatzea norberari dagokion neurrian.

Siguiendo esta actividad promotora de la interconexión Administrativa, el 6 de noviembre de 2015, la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi suscribió un Convenio de colaboración con los representantes de las tres Diputaciones Forales de los Territorios Históricos con el fin de impulsar en sus diferentes ámbitos el intercambio de información por medios electrónicos. En el Anexo II de este acuerdo, la Diputación Foral de Bizkaia se comprometió a facilitar, promover y habilitar el acceso y uso de los servicios de intermediación de datos, a los organismos y entidades de su ámbito competencial así como garantizar la calidad del servicio en la parte que le corresponda.

V. Alde sinatzaileek akordatu zuten Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Udalaren artean informazioa trukatzeari buruzko arloan sinatutako hitzarmenak suntsiaraztea.

V.- Que las Partes firmantes acuerdan resolver los Convenios en materia de intercambio de información suscritos entre la Diputación Foral de Bizkaia y Ayuntamiento.

VI. Aurrekoa oinarri hartuta, aldeek agiri juridiko hau sinatu dute; agiri honek bide ematen du

VI.-Sobre la base de lo anterior, las Partes suscriben el presente instrumento jurídico que

informazioa sinatzaileen artean trukatu ahal izateko, eta aitortu eta errazten du goian adierazitako hitzarmenen parte diren administrazioekin informazioa trukatzea, hori ez ezik, zerbitzu publikorik onenaren eta eraginkorrenaren bila, hiritarrei eskain dakizkiekeen datu eta informazioak zabaltzen ditu; izan ere, akordio honek erabilgarritasun berezia du administrazio sinatzaile bientzat. Hitzarmen honek kudeaketa publikoaren efizientzia hobetuko du, eskuarte eta zerbitzu publikoak batera erabiltzea errazago bihurtuko du, erabilgarritasun publikoko jarduerak egiteko laguntasuna emango du, eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren legeria betetzen du.

además de permitir el intercambio de información entre los firmantes, reconoce y facilita el intercambio de información con las Administraciones que forman parte de los Convenios arriba indicados, ampliando el espectro de datos e informaciones que pueden ofrecerse a los ciudadanos en la búsqueda del mejor y más eficaz servicio público, resultando el presente Acuerdo de especial utilidad para las dos Administraciones firmantes. Este convenio mejorará la eficiencia de la gestión pública, facilitará la utilización conjunta de medios y servicios públicos, contribuirá a la realización de actividades de utilidad pública y cumple con la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

Horregatik guztiagatik, alde sinatzaileek lankidetza-hitzarmen hau izenpetu dute:

Por todo ello las Partes firmantes suscriben este Convenio de Colaboración; con arreglo a las siguientes:

**KLAUSULAK**

**CLÁUSULAS**

**Lehenengoa.– Helburua eta xedea**

Hitzarmen honen xedea da baldintza eta irizpide orokorrak finkatzea, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Udalaren artean informazioa trukatzeko; era berean, bide emango du, Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan toki-administrazioak euren artean elkarrekin konektatuta egoteko. Era berean, hitzarmen honen xedea da gaiketa ematea datuen bitartekotzarako estatu-administrazioen, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren eta foru aldundien, eta Udalaren artean.

Hitzarmenaren xede nagusia da administrazio publikoen esku dauden datuak eta agiriak ez emateko eskubidearen erabilera erraztea, ekainaren 22ko 11/2007 Legeko 6.2.b) artikuluan edo haren ordez jartzen den arauan adierazita dagoen bezala; hau da, interesdunak ados daudenean edo lege batek hala erabakiz gero.

**Primera.- Objeto y finalidad**

El presente Convenio tiene por objeto establecer los términos y condiciones generales para el intercambio de información entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento, al igual que permitirá la interconexión entre las diferentes Administraciones Locales en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia entre sí. Asimismo, es objeto de este Convenio la habilitación para la intermediación de datos entre las Administraciones Estatales, la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Diputaciones Forales con el Ayuntamiento.

La finalidad principal del Convenio es facilitar el ejercicio del derecho a no aportar los datos y los documentos que obren en poder de las Administraciones Públicas, en los términos del artículo 6.2.b) de la Ley 11/2007, de 22 de junio o de la norma que la sustituya, esto es, siempre que se cuente con el consentimiento de las personas interesadas o una Ley así lo determine.

Hala ere, hitzarmen honi esker, hiritarrek emandako datuak egiaztatu edo begiratu egin ahal izango ditu administrazioak, haien adostasuna izan behar gabe, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 11.2 eta 21. artikuluetan adierazitako moduan.

No obstante, este Convenio permitirá que cada Administración verifique o compruebe los datos aportados por la ciudadanía, sin necesidad de su consentimiento, en los términos previstos en los artículos 11.2 y 21 de la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal.

Aldeek lortutako emaitzek zerbitzu hobea ekarriko diete hiritarrei, eta, beraz, alde bakoitza datu horien titularra izango da.

Los resultados obtenidos por las Partes redundará en el mejor servicio a la ciudadanía y por tanto, cada Parte será titular de los mismos.

**Bigarrena.– Aplikazio-eremua**

**Segunda.– Ámbito de aplicación.**

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Durangoko Udalak hitzarmen honetako eranskinetan zerrendatutako zerbitzuen funtzionalitateak baliatu ahal izango dituzte; eranskinak hauek dira:

La Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Durango podrán acceder a las funcionalidades proporcionadas por los servicios relacionados en los anexos al presente Convenio que, a continuación, se especifican:

– I. eranskina. Datuen transmisioa.

– Anexo I. Transmisión de datos.

– II. eranskina. Estatuko Administrazio Orokorraren, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren, hiru lurralde historikoetako toki-erakundeen eta Durangoko Udalaren arteko datu-bitartekotza.

– Anexo II. Intermediación de datos entre la Administración General del Estado, la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, Entidades Locales de los Tres Territorios Históricos y el Ayuntamiento de Durango.

Era berean, aldeek beste funtzionalitate batzuk ere baliatu ahal izango dituzte. Horretarako, beste funtzionalitate horiek beste eranskin batean edo batzuetan zehaztu, eta hitzarmen honetara bilduko dituzte. Sinatzaileek adostuko dute zeintzuk, baina, edonola ere, horretarako prozedurak derrigorra izango du bermatzea, beti, zerbitzu bakoitzean erabiltzailearentzat jarritako betebeharrak beteko direla.

De igual forma, las partes, podrán acceder a nuevas funcionalidades mediante la incorporación a este Convenio de nuevos anexos para Servicios no incluidos en el mismo, acordados por las firmantes a través de un procedimiento que garantice, en todo caso, el cumplimiento de las obligaciones establecidas en cada servicio para el usuario.

**Hirugarrena.– Informazio-trukearen arduradunak**

**Tercera.– Responsables del intercambio de información**

1. Administrazio lagatzaile bakoitzak erabakiko du zein protokolo eta baldintza bete behar diren datuak trukatzeko eskaintzen diren zerbitzuetan

1.– Cada administración cedente establecerá los protocolos y condiciones de acceso a los servicios de intercambio de datos que se

sarbidea izateko. Datuak bitartekotza bidez trukatzeko eskabideak koordinatu, izapidetu eta kontuan izateko organo arduraduna hau da:

– Durangoko Udalean: administrazio elektronikoan eskuduna den unitatea.

– Bizkaiko Foru Aldundian: administrazio elektronikoan eskuduna den zuzendaritza.

2. Datuen lagapena hartzen duen administrazio bakoitzak datuetara sarbidea izateko baldintzak beteko ditu, eta baimendutako administrazio-izapide eta -prozeduren eremuan lagatzaileak emandako informazioa eskuratu nahi duten pertsonen eta organoen sarbidea kudeatuko du. Datuak bitartekotza bidez trukatzeko eskabideak koordinatu, izapidetu eta kontuan izateko organo arduraduna hau da:

– Durangoko Udalean: administrazio elektronikoan eskuduna den organoa.

– Bizkaiko Foru Aldundian: administrazio elektronikoan eskuduna den zuzendaritza.

**Laugarrena.– Baldintza teknikoak eta funtzionalak**

Datuen bitartekotza-protokoloen elkarreragingarritasuna ren arau teknikoan jasotako baldintzak aplikatuko zaizkio (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2012ko uztailaren 26koa) hitzarmen hau aplikatuz egiten den datuen truke bitartekotuari.

**Bosgarrena.– Jarraipen Batzorde Teknikoa**

Hitzarmen honetan eta eranskinetan erabakitakoaren kudeaketa, jarraipena eta kontrola egiteko, jarraipen batzorde tekniko bat eratuko da; kide hauek izango ditu: Durangoko Udalak izendatutako bi kide, eta Bizkaiko Foru Aldundiak izendatutako beste bi.

ofrezcan. El órgano responsable de coordinar, tramitar y atender las solicitudes de intercambio intermediado de datos es:

– En el Ayuntamiento de Durango: la Unidad competente en Administración Electrónica.

– En la Diputación Foral de Bizkaia: la Dirección competente en Administración Electrónica.

2. Cada administración cesionaria de datos cumplirá las condiciones de acceso a los datos establecidos y gestionará el acceso de las personas y órganos a la información suministrada por el cedente en el ámbito de los trámites y procedimientos administrativos autorizados. El órgano responsable de coordinar, tramitar y atender las solicitudes de intercambio intermediado de datos es:

– En el Ayuntamiento de Durango: el Órgano competente en Administración Electrónica.

– En la Diputación Foral de Bizkaia: la Dirección competente en Administración Electrónica.

**Cuarta.– Condiciones técnicas y funcionales.**

Se aplicarán las condiciones establecidas en la Norma Técnica de Interoperabilidad de protocolos de intermediación de datos (BOE de 26 de julio de 2012) al intercambio intermediado de datos que se realice en aplicación del presente Convenio.

**Quinta.– Comisión Técnica de Seguimiento.**

Comisión Técnica de Seguimiento que estará compuesta por dos miembros designados por el Ayuntamiento de Durango y dos miembros designados por la Diputación Foral de Bizkaia.

Jarraipen Batzorde Teknikoak bilera egingo du, baldin eta aldeetako batek hilabete aurretik deialdia egiten badu, eta bileraren helburua izango da azaldu beharreko alderdiren bat ebaztea.

La Comisión Técnica de Seguimiento se reunirá si alguna de las Partes la convoca previamente con un mes de antelación para resolver algún aspecto concreto que requiera de explicación.

Jarraipen Batzorde Teknikoari dagokio hitzarmen hau interpretatzean eta betetzean sortutako arazoak konpontzea, bai eta alde sinatzaileei hitzarmenaren edozein aldaketa proposatzea ere.

Corresponde, a la Comisión Técnica de Seguimiento, resolver los problemas de interpretación y cumplimiento que se deriven del presente Convenio, así como proponer a las partes firmantes cualquier modificación del mismo.

Gainera, Jarraipen Batzorde Teknikoak erabaki ahal izango ditu hitzarmenaren funtsa ukitzen ez duten aldaketa teknikoak.

Las modificaciones de tipo técnico, que no constituyan modificación sustancial del Convenio, podrán ser acordadas por la propia Comisión Técnica de Seguimiento.

**Seigarrena.– Araubide ekonomikoa**

**Sexta.– Régimen económico.**

Lankidetza-hitzarmen honek ez du sortzen sinatzaileen arteko kontraprestazio ekonomikorik. Hala ere, aldeek beharrezko inbertsioak egin beharko dituzte beren instalazioetan, hitzarmen hau sinatuta beren gain hartu dituzten betebeharrak betetzeko, betiere berez egin ahal izanez gero.

Este Convenio de colaboración no comporta contraprestaciones económicas entre las partes firmantes, sin perjuicio de que, cada una de ellas, deba realizar las inversiones necesarias en sus instalaciones; para cumplir con las obligaciones contraídas mediante la firma del presente Convenio, siempre que materialmente sea posible.

**Zazpigarrena.– Hitzarmenaren indarraldia**

**Séptima.– Plazo de vigencia del Convenio.**

Hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa izango da, sinatzen den egunetik zenbatzen hasita. Aurreikusitako epea bukatu aurreko edozein unetan, alderdiek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena lau urtera arteko aldirako luzatzea edo berau bertan behera uztea.

El plazo de vigencia del presente Convenio es de cuatro años, contados a partir del día de su firma. En cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto, las partes podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

**Zortzigarrena.– Hitzarmenaren berrikuspena**

**Octava.– Revisión del Convenio.**

Aldeek edonoiz proposatu ahal izango dute hitzarmena berrikustea, bidezkotzat jotzen diren aldaketak egiteko.

Cualquiera de las partes podrá proponer la revisión de este Convenio, en cualquier momento, para introducir las modificaciones que se estimen pertinentes.

Klausulak berrikusten badira, aldaketak aldeek sinatu beharreko gehigarri batean jasoko dira.

De producirse la revisión de su clausulado, los cambios correspondientes habrán de incorporarse al mismo, mediante Adenda que será suscrita por las partes.

Gainera, aldeek, gehigarrien prozedura hori erabiliz, eranskinak sartzea akordatu ahal izango dute, baina horrek ez du berekin ekarriko hitzarmeneko klausulak berrikustea.

Asimismo, mediante dicho procedimiento de Adenda, las partes podrán acordar la incorporación de anexos, sin que esto suponga la revisión de las cláusulas del presente Convenio.

**Bederatzigarrena.– Hitzarmenen suntsiarazpena/ indarraldia/aldaketa**

**Novena.- Resolución/Vigencia/Modificación de Convenios**

Alde sinatzaileek akordatzen dute, informazioa euren artean trukatzeko lehenago sinatutako lankidetza-hitzarmena suntsiaraztea.

Las partes firmantes acuerdan resolver el Convenio de colaboración entre estas Administraciones para el intercambio de datos suscritos anteriormente.

**Hamargarrena.– Araubide juridikoa**

**Décima.– Régimen jurídico.**

Hitzarmen hau toki-araudiari jarraituko zaio, eta, haren osagarri gisa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeari, bai eta azken hau ordezten duten arauei, hala nola Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeari, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeari

El presente Convenio se rige por la normativa local y, supletoriamente, por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, así como por las normas que la sustituyan, tales como la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

**Hamaikagarrena.– Gatazkak konpontzea**

**Undécima.– Resolución de conflictos.**

Hitzarmen hau sinatu duten aldeek konpromisoa hartu dute hura betetzean sortzen diren gorabeherak elkar hartuta konpontzeko. Aldeetako bakoitzak bereganatutako betebehar eta konpromisoetatik edozein betetzen ez bada, hitzarmen hau iraungo ahal izango da. Jarraipen Batzorde Teknikoak erabakiko ditu irizpideak, ez-betetzeak ekar dezakeen kalte-ordaina zehazteko.

